

## d) Inklusioa

### 1. maila: Oinarrizkoa

Lan-plana ikasleen aniztasuna aintzat hartu gabe gauzatzen du.

Ez die erreparatzen ezberdintasunei (curriculuma, kompetentziak, kultura, generoa, jatorria, egoera ekonomikoa, eta abar), edo bere jardunerako oztopotzat ikusten ditu.

Ikasle batzuek arrakastarako aukera gutxi dituztela uste du.

### 2. maila: Garatze bidean

Zailtasunak dituzten ikasleen eta azkarrago aurrera egin nahi dutenen premiak identifikatzen ditu.

Ikasle bakoitzaren zailtasunei erantzuteko estrategiak partekatzen ditu, eta estrategiok ikasgelako jardueretan integratzen saiatzen da.

### 3. maila: Garatua

Atazak ikasle guztiek dagokion unitate didaktikoko helburuak lantzeko moduan abiatzen ditu, baina, aldi berean, bakoitzaren premietara ere egokitzen dira.

Itxaropen handiak ditu ikasleen emaitzekiko, eta helburuak betetzen laguntzen die.

Beharrezkoa bada, espezialisten aholkua eta laguntza eskatzen du, bai zailtasunak dituzten ikasleentzat, bai curriculuma aberasteko jarduerak behar dituztenentzat; eta posible den neurrian, ikasgela arruntean ere txertatzen ditu horiek guztiak.

Aniztasunari balioa ematen duen eta aukerak sortzen dituen elementu gisa heltzen dio.

### 4. maila: Aurreratua

Egokiro planteatzen ditu atazak, ikasle guztiek ahalik eta gehien garatu ditzaten konpetentziak, inklusioaren ikuspegitik.

Eskolaren dinamikan integratzen ditu hezkuntzako langileen laguntzak ikasgelaren ikuspegi orokorretik.

Estrategia eraginkorrak erabiltzen ditu ikasle guztiek lor ditzaten beren helburuak.

Aniztasuna herritartasunarekin eta taldearen kohesioarekin erlazionatutako balioak eta curriculuma garatzeko aberastasun eta aukera gisa baliatzen du.

Aniztasuna sistematikoki erabiltzen du bere jardueretan.